

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Inoiz sentitu al duzu autoa xahutzen ari zarela? Inoiz izan al duzu auto pribatu baten beharra, baina aldi berean jakitun zara munduaren egoera ekologiko kaskarraz? Bada, Gurpil-bidez-ek autoak aldatzeko industria zaharkituarentzat alternatiba bat proposatzen du. Gure oinarriak erosotasuna, azkartasuna eta exijentzia dira, baina baita ekologia eta merketasuna ere.

Gurpil-Bidez-ek autoa denbora batez soberan duten eta auto bat behar duten horien arteko lotura egiten du, autoaren partekatzea bultzatuz. Webgune batek osaturiko plataforma baten bidez Gurpil-Bidez-ek BlaBlaCar eta Cabify bezalako enpresek eskaintzen ez duten kilometroen araberako ordainketa sistema eta autoen gidatze pertsonala eskaintzen du. Azkenik, zerbitzuak eskainitako esperientzia eta bezeroen integrazioa Gurpil-Bidez-ekiko hobetzeko, harpidetza bat eta bezeroarentzako arreta sistema bat eskaintzen dugu.